

POS-G34

*PD en Europa y el Mundo Atlántico: Poder, Cultura y Sociedad***«¿DEZISTES COSA SUPERSTICIOSA PARA SANAR?» ELIZAREN JARRERA MAGIA TERAPEUTIKOAREN AURREAN GAZTELAKO KOROAN XV-XVI MENDEETAN**

Olatz Etxeberria

EHU/UPV

Osasuna izan da historian zehar gizakiaren oinarritzko arduretako bat, oinarritzkoena ez bada. Hala zen ziurrenik Erdi Aroa deritzogun garaian ere. Izan ere, iturrietan argi ikus daitekeenez, oso ugariak eta era askotarikoak ziren jendeak sendatzeko erabili ohi zituen erremedioak. Magikoak askotan. Gehienetan praktika hauek elementu askoren nahasketa izan ohi ziren, elementu natural eta erlijiosoen arteko konbinazioak esaterako. Ohikoa zen adibidez formula magikoak eta orazioak idatzita zeramatzen kutunak eramatea, edo ukendu baten ahalmena handitzeko zenbait hitz edo otoitz esatea, besteak beste. Elizak bere sorrerako momentutik irmoki kondenatu zuen magiaren erabilera. XV. mende inguruan ordea, are gehiago gogortu zen eliztar autoritateek praktika hauekiko zuten jarrera. Erreforma Katolikoaren gertutasunak (Trentoko Kontzilioan, 1545an formalizatu zena) eragin zuzena izan zuen horretan, Erreformaren helburu nagusienetariko bat kristauen jarrera ezegokiak zuzentzea baitzen. Hala, fededunek erlijioa bizi eta praktikatzeko zuten modua erreformatu nahian izugarri hazi zen egunerokoan erabilitako praktikekiko ardura, eta tartean magiarekiko kezka. Testuinguru honetan sendatzeko erabilitako praktika magiko eta superstiziosoek protagonismo berezia hartu zuten, beste helburu batzuetarako erabilitako praktika magikoen gainetik. XV eta XVI. mendeko teologo eta moralistek askoz ere ahalegin handiagoa egiten zuten magia terapeutikoarekin erlazionatutako praktika okerrak deskribatu eta kondenatzen. Gainera askoz xehetasun gehiagorekin deskribatzen zituzten, praktika onartu eta debekatuen arteko desberdintasunak gehiago azpimarratuz. Zergatik halako kezka magia terapeutikoarekiko? Galdera horren erantzuna bilatzea da tesiaren helburu nagusia. Izan daiteke batetik, sendatzeko erabilitako praktikak fededunek gehien erabiltzen zituztenak zirelako, baina baita medikuntza akademikoarekiko gertutasunagatik nahiz erlijioarekin eduki zezaketen antzekotasunengatik errez nahasteko moduko praktikak izan ohi zirelako ere. Horrez gain, nabaria da teologo erreformazaleek fededun xumeen gaizki ulertuak zuzentzeko bakarrik ez, beste elizgizon eta baita medikuen jarrerei lur emateko helburua ere bazutela, askotan magia terapeutikoa justifikatzeko argudioak erabiltzen baitzituzten, bai batzuek eta baita besteek ere.